astialdi sarea



# ASTIALDI PAPERAK

**2/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena.**

## ASTIALDI HEZIGARRIA:

JOLASERAKO ETA AISIALDIRAKO ESKUBIDEA.

AISIALDI HEZIGARRIKO JARDUERAK SUSTATZEKO JARDUKETAK.

**LEY 2/2024, de 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia.**

## OCIO EDUCATIVO:

DERECHO AL JUEGO Y AL OCIO.

ACTUACIONES PARA LA PROMOCIÓN DE LAS ACTIVIDADES DE OCIO EDUCATIVO.

Laguntza ekonomikoa / Con la ayuda económica de

+ INFO:
astialdisarea.eus
bulegoa@astialdisarea.eus
T. 688 876 529

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

### 35. artikulua.– Jolaserako eta aisialdirako eskubidea.

1.– Pertsona adingabeek atsedenerako, jolaserako eta aisialdirako eskubidea dute, aisialdi hezigarria barne, ingurune irisgarri, seguru, osasungarri eta inklusiboetan hezteko, osorik garatzeko eta sozializatzeko funtsezko elementu gisa.

2.– Lege honen ondoreetarako, aisialdi hezigarritzat hartzen da garapen integralari laguntzen dioten aisialdiko jardueren multzoa; jarduera horiek pertsona adingabeak parte hartzeko ohituretan, ingurumena errespetatzeko ohituretan edo konpromiso, elkartasun eta gizarte-inklusiorako balioetan heziko dituzte, eta pertsona adingabeei berdinen arteko harremanak eta gizarte-gaitasuneko trebetasunez jabetzen lagunduko diete.

## AISIALDI HEZIGARRIKO JARDUERAK SUSTATZEKO JARDUKETAK

### 78. artikulua.– Jarduteko printzipioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, aisialdi hezigarriko jarduerak sustatzeko dituzten eskumenak egikarituz, printzipio hauen arabera jardungo dute:

a) Aisia-jardueren heziketa-edukia indartuko dute, zeinen oinarria baita elkarrekiko errespetua, elkartasuna, ekitatea, tratu ona, indarkeriarik eza eta jasangarritasuna.

b) Jarduera horietan genero-berdintasuna sustatuko dute, pertsona adingabeen heziketa inte grala eta errespetuzko ohiturak eta balio demokratikoak eskuratu ditzaten laguntze aldera.

### Artículo 35.– Derecho al juego y al ocio.

1.– Las personas menores tienen derecho al descanso, al juego y al ocio, incluido el ocio educativo, como elementos esenciales para su educación, su desarrollo pleno y su socialización, en entornos accesibles, seguros, saludables e inclusivos.

2.– A los efectos de la presente ley, se entiende por ocio educativo el conjunto de actividades de tiempo libre que contribuyen al desarrollo integral; que educan en hábitos de participación, en el respeto al medio ambiente, o en valores de compromiso, solidaridad e inclusión social, y que favorecen las relaciones entre iguales y la adquisición de habilidades de competencia social.

## ACTUACIONES PARA LA PROMOCIÓN DE LAS ACTIVIDADES DE OCIO EDUCATIVO

### Artículo 78.– Principios de actuación.

Las administraciones públicas vascas, en el ejercicio de sus respectivas competencias en materia de promoción de las actividades de ocio educativo, ajustarán su actuación a los siguientes principios:

a) Reforzar el contenido educativo de las actividades de ocio, basadas en el respeto mutuo, la solidaridad, la equidad, el buen trato, la no violencia y la sostenibilidad.

b) Promover la igualdad de género en la práctica de estas actividades, con el fin de contribuir a la educación integral de las personas menores y a la adquisición de hábitos respetuosos y valores democráticos.

c) Arduratuko dira bermatzeaz pertsona adingabe guztiek aukera berak dituztela jolaseko eta aisialdi hezigarriko jarduerak gauzatzeko eta nork bere gaitasun eta aisia-ohiturak garatzeko; horretarako, ekintzak antolatuko dituzte aisialdiarekin lotutako genero-desberdintasunak eta -este reotipoak desagerrarazteko.

d) Pertsona adingabeek aisialdi hezigarriko jarduerak egitea hezkuntza arautuarekin eta familia-bizitzarekin bateragarria dela zaintzea.

## 79. artikulua.– Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, kultura-, hezkuntza- eta aisialdi-arloan dituzten eskumenak egikarituz, dibulgazio-jarduerak egingo dituzte, herritarrak informatu, sentsi bilizatu eta kontzientziatzeko pertsona adingabeek aisialdirako eta, bereziki, aisialdi hezigarrirako duten eskubideari buruz, baita era horretako jarduerak egin ahal izateko denborak eta espazioak bermatzeko beharrari buruz ere.

c) Velar por garantizar a todas las personas menores las mismas oportunidades de practicar actividades de juego y de ocio educativo y de desarrollar sus capacidades y hábitos de ocio, arbitrando para ello acciones dirigidas a eliminar las desigualdades y los estereotipos de género asociados al ocio.

d) Velar por la conciliación de las actividades de ocio educativo con la educación reglada y la vida familiar de las personas menores.

## Artículo 79.– Sensibilización y concienciación.

Las administraciones públicas vascas, en el ejercicio de sus competencias en materia de cultura, educación y ocio, desarrollarán actividades de divulgación con el fin de informar, sensibilizar y concienciar a la población en relación con el derecho de las personas menores al ocio, y en particular al ocio educativo, y con la necesidad de garantizar tiempos y espacios para que puedan desarrollar este tipo de actividades.



## 80. artikulua.– Aisialdi hezigarriko jardueretarako irispidea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, jarduketa hauek garatuko dituzte:

a) Dibertsioaren, aisialdi hezigarriaren eta denbora librearen erabilera-modu osasungarri eta askotarikoen aukera sustatzea.

b) Jolasteko eta aisialdi hezigarria izateko aukera berak ematea haur eta nerabe guztiei. Horre tarako, ekintza positiboko konpentsazio-neurriak hartuko dituzte desgaitasunak dituzten pertsona adingabeen alde, edota arrazoi ekonomiko, sozial edo kulturalengatik zaurgarritasun sozialeko egoeran daudenen alde.

c) Teknologia digitalen eta horiek aisialdi hezigarrirako dituzten aplikazioen erabilera segurua eta arduratsua sustatzea.

d) Haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzu eta ekipamendu ludikoak sortzea sustatzea.

e) Auzoetan eta udalerrietan aisialdi hezigarriko jardueren antolaketa sustatzea, bai erakunde publikoetatik, bai auzo- eta elkarte-ekimenak bultzatuz, pertsona adingabeek eskaintza egonkorra, erregularra, askotarikoa eta hurbilekoa izan dezaten.

f) Jolas- eta aisialdi hezigarriko jardueretan parte hartzea sustatzea, bai eskola-ingurunean, bai komunitate-ingurunean.

g) Haurren eta nerabeen asoziazionismoa sustatzea aisialdi hezigarriaren eta aisialdiko jardue ren eremuan.

## Artículo 80.– Acceso a las actividades de ocio educativo.

1.– Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, desa rrollarán las siguientes actuaciones:

a) Promover la adopción de formas saludables y diversificadas de diversión y de ocio educativo y de uso del tiempo libre.

b) Ofrecer las mismas oportunidades de juego y ocio educativo a toda la población infantil y adolescente. A tal efecto, arbitrarán medidas compensatorias de acción positiva en favor de las personas menores con discapacidad o que se encuentren en situación de vulnerabilidad social por razones económicas, sociales o culturales.

c) Promover el uso seguro y responsable de las tecnologías digitales y sus diversas aplicacio nes al ocio educativo.

d) Fomentar la creación de servicios y equipamientos lúdicos dirigidos a la población infantil y adolescente.

e) Fomentar la organización de actividades de ocio educativo en barrios y municipios, bien desde las instituciones públicas, bien apoyando iniciativas vecinales o asociativas, de manera que las personas menores dispongan de una oferta estable, regular, variada y cercana.

f) Promover la participación en actividades de juego y ocio educativo, tanto en el medio escolar como en el entorno comunitario.

g) Promover el desarrollo del asociacionismo infantil y juvenil en el ámbito del ocio educativo y de las actividades recreativas.

h) Eskola-instalazio publikoen erabilera soziala erraztea, eskola-ordutegitik kanpo pertsona adingabeentzako aisialdi hezigarriko jarduerak egiteko, betiere erabilera egokia izango dela ber matzen bada eta irakaskuntzako ekipamendu gisa duten eginkizun nagusia oztopatzen ez badute.

i) Ikastetxe publikoetan oporraldietan aisialdi hezigarriko eta denbora libreko programak egin daitezen bultzatzea, aldi horretan gurasoen lana eta familia bateragarri egiten laguntzeko.

j) Pertsona adingabeak sar daitezkeen jolasgune publikoetan egiten diren jardueren ezauga rriak arautzea, bai eta jolasgune horiek zaintzeko dagozkion neurriak ere.

2.– Halaber, desgaitasunen bat duten pertsona adingabeenganako errespetua sustatuko dute; etapa ebolutibo bakoitzeko garapen fisiko, psikiko eta sozialean lagunduko dute; eta saihestu egingo dituzte edozein diskriminazio mota, jarrera matxistak edo indarkeriazko eta gorrotozko jarrerak bultzatzen dituzten elementu, mezu edo estereotipoak.

3.– Haur eta nerabeentzako jolas, jostailu eta bideojokoak pertsona adingabeen beharrizanei egokitu beharko zaizkie, eta adinaren araberako psikomotrizitatearen garapenerako lagungarri izan behar dute, indarrean dagoen araudian galdatutako segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak aintzat hartuta.

h) Facilitar el uso social de las instalaciones escolares públicas para la realización de actividades de ocio educativo destinadas a las personas menores fuera del horario lectivo, siempre que existan garantías de una utilización adecuada y no interfiera en su función principal como equipa miento docente.

i) Impulsar el desarrollo en los centros educativos públicos de programas de ocio educativo y tiempo libre durante los periodos vacacionales, al objeto de favorecer la conciliación de la vida laboral y familiar de padres y madres durante ese periodo.

j) Reglamentar las características de las actividades que se llevan a cabo en las zonas recreativas públicas a las que tienen acceso las personas menores, así como las medidas de vigilancia que correspondan.

2.– Asimismo, fomentarán el respeto hacia las personas menores con discapacidad; ayudarán al desarrollo físico, psíquico y social de cada etapa evolutiva, y evitarán los elementos, mensajes o estereotipos que propicien cualquier tipo de discriminación, actitudes machistas o actitudes vio lentas y de odio.

3.– Los juegos, juguetes y videojuegos destinados a la población infantil y adolescente deberán adaptarse a las necesidades de las personas menores y ayudar al desarrollo psicomotor en función de su edad, respetando las condiciones de seguridad y accesibilidad exigidas por la normativa vigente.



astialdi sarea

Laguntza ekonomikoa / Con la ayuda económica de

+ INFO:
astialdisarea.eus
bulegoa@astialdisarea.eus
T. 688 876 529

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO